

Lekuko, Iratzeder

«Zoroak egin, eroak egin, egina egin», esan omen zuten. Bilbo-ko Mensajero etxeak egin egiteaz gain, eskertu beharrekoa diogun lan estimagarria egin du, Iratzeder-en poema dotore eta hitz-lauzko samurrak liburu mardul batean ber-argitaratuz (*Biziaren Olerkia*): honetara, iparraldeko eta gerrateen osteko euskal literaturaren lekuko bat, ez bakarria baina bat, heldu-aldi batez daukagu esku-artean.

Iratzeder-en maisuak Lafitte eta Narbaitz dira eta maisu-ikasleen helmuga nagusienetarikoa (gaitz da bakarria izatea) zera zatekeen: «Jainkoari emana, ez da Herriarentzat galdua». Dirudienez, Espainiako anaiarteko gerratean, ipar Euskal Herriari Eliza katolikoak zeuzkan apaiz euskaltzale indartsuak, horiexek bakarrok ziren: jarrera hau, hots, abertzaletasunari jainkotiarki eustea, zorotasuna zen. Hau Iratzeder-ek Lafitteri azaltzean, ihardesten dio honek: «Zer! Zu bezalako zoro ainitz balitz, zentzu gehiago baliteke munduan».

Apaiz-talde honek —Xarriton ere barruko dateke, baina «adimendua» berau, Iratzeder-en hitzez esateko—, *Gure Herria* eta *Aintzina* aldizkariak sortzen eta eusten ditu. Baina Iratzeder-ek badu bide berezi eta propiorik ere: *Ezkila* eta *Otoizlari* argitaratuko ditu Belok-en. Iratzeder-en lekukotasunak ezagugarri bi dituela esango genuke. Bat, hegotasuna: hegoaldeko janaritzen da, Sabino Arana, Arrese Beitia eta horien ildotik, eta ez Paris aldetik. Ez zuen, antza, J. Mirande ezagutzen eta M. Legasse-rekin epelkiro hausten du. Bia, euskal airezko liturgia: berak dioenez, euskal airez nahi ditu burutu Jainkozko alabantzak. Iratzeder-en sortze-lan osoak, ezaugarri horixe ote duen gaude: euskal liturgia berriztatzen eta bultzatzen du, poema fin eta txukunez, Lertxundi fraidekidearen musikaz.

Euskal Herriko Eliza katolikoaren eraginpean, Gandiaga dateke joera hori eteten duen lehena: Bitoriano Mendatarrak, gizon europarraren kezka eta arrenkurak arantzaz eta lorez janzteaz gainera, ez du *Elorri* kanta dezagun ondu, isiltasunean irakurri eta berresan dezagun baizik. ■ *A. Zelaieta*